



Sorosle eta sorospen ikastaroa eskainiko du DYAk Usurbilen



Tailer ugari eskaini ohi ditu DYAk arrisku egoerei nola erantzun erakusteko.

Martxoaren 11tik apirilaren 2ra luzatuko da eta egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko du

JOSU ARANBERRI

Jueves, 21 febrero 2019, 00:17



Datorren martxoak 11, Usurbilen Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaro berri bati hasiera emango dio DYA Gipuzkoak, biztanlego osoari irekia egongo delarik. Ikastaroa euskaraz emango da. Ikastaroaren iraupena apirilaren 2ra artekoa izango da, astelehenetik ostiralera 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroa, Usurbileko DYA Ordezkaritzan izango da, Muna Lurra kalea, 26.

Ikastaroak, kontuan izanik ez dela beharrezkoa aurrez ezagupenik izatea, egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko du. Bihotz eta birika susperketa, zauriak, hausturak, erredurak... Ezagupen oso arruntak baina laguntza asko eman dezaketen hauek, oso modu eroso eta atseginean erakusten dira eta teoria eta praktika alderdiak ikutuaz.

Bestalde, ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izango du.

Matrikularen kostea, ikastarorako txostena barne delarik 110 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearren.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943-46.46.22 telefonora edo sartu www.DYAgipuzkoa.com.

Arnaldo Otegi Usurbilen

Usurbilgo EHBilduk antolatuta, gaur arratsaldean EH Bilduko koordinatzaile orokorra den Arnaldo Otegirekin solasaldia entzuteko aukera izango da Sutegiko auditorioan, 18:30ean. Mertxe Aizpurua kalezartarrak (Usurbilgo alkate ohia eta kazetaria) gidatuko du solasaldia.

La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Costa Urola

[Top 50](#)

1 La regeneración del parque de Vista Alegre entra en su recta final

Aranburu y Vitoria compiten desde ayer en Noronha, Brasil